



Arartekoaren 2019R-2521-17 Ebazpena, 2019ko otsailaren 13koa. Horren bidez, Hondarribiko Udalari gomendatzen dio, udalerriko autokarabanei eta ibilgailu astunei egoerari buruz udal talde batek eskatutako dokumentazioa entrega dezala.

Aurrekariak

1. (...) Udal Taldeak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan Hondarribiko Udalaren jardunarekin bat ez zetorrelako eta beren kargu publikoen bidezko egikaritzarako mugak zirela eta.

Udal taldeak azaldu duenez, 2017ko irailaren 25ean udalerriko autokarabanei eta ibilgailu astunei buruz egindako txostena emateko eskatu zuen idatziz, dokumentuaren egilea zen Udaltzaingoak zuzenean ez baitzien hura eman.

Interesdunek adierazi dutenez, eskatutako dokumentazioa entregatzeko arau erregulatzailak finkatutako bost egunak igaro badira ere, ez dute dokumentua jaso eta, beraz, erakunde honek esku har dezala eskatu du.

2. Arartekoak, behin kexaren xedea aztertuta, informazioa eskatu zion Hondarribiko Udalari. Eskaera-idazkian lehenengo gogoeta batzuk helarazi ziren honi lotuta: korporazioko kideek udalean dagoen informazioa nahiz dokumentazioa eskuratzeko arloan dituzten eskubideei lotutako erregulazioa.

Hasierako kexa aurkeztu ondoren, udal talde kexagileak Alkatetzaren 2017ko urriaren 23ko mezu elektronikoa bat helarazi zigun; bertan, Udaltzaingoaren bi foliotako txosten bat eranstean zen, sinatu gabe, eta uste zuten 400 orrialde inguruko dokumentuari ez zegokiola (bere garaian ikusi ahal izan zutena), nahiz eta ez zitzaizkopiarik eman horretarako baimenik ez izatean.

Informazio eskaeran, Arartekoak egoera hori aipatu zuen berariaz, udalak aintzat har zezan.

3. Hondarribiko Udalak gure informazio eskaerari erantzun zion honako hau adieraziz: Udaltzaingoaren buruak egindako txostena igorri zitzaizkela interesdunei posta elektronikoz 2017ko urriaren 20an. Bestalde, jakinarazi da, *“que no existe un informe como tal de 400 páginas sino documentos de trabajo realizados por un agente municipal para el estudio y elaboración del informe realizado por el Jefe de los municipales cuya copia le adjunto”*.
4. Lehenengo erantzun hori kontuan hartuta, Arartekoak informazioa eskatu zuen berriz, argudiatuz zergatik uste zuen udal talde kexagileak eskubidea zuela interesdunek aipatutako erreferentziako dokumentua eskuratzeko, helarazi zitzaizkien gogoeten arabera eta, errepikakorrak ez izateko, gogoeten hurrengo atalean azalduko direnak.





Kudeaketa lanak egin arren, bigarren informazio eskaera horrek ez du erantzunik jaso; beraz, eskaera egin zenetik urtebete baino gehiago igaro denez, Arartekoak gomendio hau egin du ondoren aipatuko diren argudioen arabera.

Gogoetak

1. Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Antolaketaren eta Funtzionamenduaren gaineko Erregelamenduaren 14. artikuluan eta hurrengoetan araututa daude korporazioko kide guztien eskubideak, besteak beste, udalaren esku dagoen eta kideen funtzioa betetzeko beharrezkoa den informazioa eta dokumentazioa jasotzeko eskubidea.

Arau horrek epe batzuk zehazten ditu, artikulua horietan jasota dauden kasu guztietarako, eta eskatzaileak epe horietan ikusi behar ditu eskatutako dokumentuak. Edonola ere, informazioa jasotzen duten dokumentuak ikustea ukatu nahi izanez gero, arrazoitutako ebazpen edo erabakiaren bidez egin beharko da.

Ondorio horietarako, Toki Erakundeen Antolaketaren eta Funtzionamenduaren gaineko Erregelamenduaren 14.2 artikuluan, honako hau xedatzen da: eskaera administrazio-isiltasun bidez onartutzat joko da, eskaera aurkeztu den egunetik hasita bost eguneko epean uko egiteko ebazpenik edo erabakirik eman ez bada.

Horri dagokionez, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 24.3. artikuluan agintzen du, berriazko ebazpena emateko betebeharrak araubide hau bete beharko lukeela:

a) Administrazio-isiltasunez baiesten den kasuetan, egintzaren ondorengo ebazpen espresua hura berresteko baino ezin da izan.

Hortaz, alkateak 2017ko urriaren 23an bidalitako mezu elektronikoak Toki Erakundeen Antolaketaren eta Funtzionamenduaren gaineko Erregelamenduan ezarritako bost eguneko epea nabarmen gainditzen du eta, horregatik, udal erabakiaren legezko aukera bakarra dokumentazioa eskatutako baldintzetan entregatzen dela baieztatzea zen. Udal taldeak jaso zuen hiru orrialdetako Udaltzaingoaren txostena ez zetorren bat interesdunek eskatutako 400 orrialdetako dokumentuarekin; beraz, administrazio isilune positiboa izatean, eskatutakoa entregatu beharko zen. Laburbilduz, udalak ez zuen bete Udaltzaingoaren bulegoetan zegoen 400 bat foliotako dokumentua entregatzeko zuen betebeharra.

2. Udalak Arartekoaren informazio eskaerari igorritako erantzunean argudiatzen zen (ebazpen honen bigarren aurrekariak aipatzen den moduan) txostenik ez





zegoela, lanerako dokumentuak baizik Udaltzaingoko buruak egindako txostena aztertzeko eta egiteko.

Arartekoak udalera igorritako bigarren informazio eskaeran adierazi ahal izan zuen moduan, 400 bat orrialdetako dokumentuari eman nahi zaion izena alde batera utzita (interesdunek ikusi ahal izan zuten), udal taldeak egindako eskaera Toki Erakundearen Antolaketaren eta Funtzionamenduaren gaineko Erregelamenduaren 14.1 artikulua korporazioko zerbitzuen esku dauden “**nahi beste aurrekari, datu edo informazio**” deritzonaren barnean sar daiteke.

Interesdunek lortu nahi zuten dokumentazioa Udaltzaingoaren bulegoetan zuzenean jaso ezin ahal izan zutenari buruzkoa zen; hala, idatziz eskatzeko esan zitzaizen, hau da, argi eta garbi identifikatuta zegoela, barnean jar diezaioketen izena alde batera utzi gabe.

Gainera, emandako informazioaren arabera, udaltzain batek egindako dokumentuak dira, Udaltzaingoaren buruak txostena prestatzeko euskarri modura balio izan dutenak. Ondorio horietarako, RAE erakundeak “txostena” honako era honetan definitzen du: “*Gertakari edo gai baten ezaugarrien eta inguruabarren deskribapena, ahoz edo idatziz*”, hots, txostenaren adierak oso zentzu zabala du, eta bertan udaltzain batek egindako parteak edo landa azterketak sartuko lirateke ondoren Udaltzaingoaren buruak txostena egiteko euskarri gisa.

Laburbilduz, izena alde batera utzita, udal talde kexagileak eskatutako dokumentuari buruzko zalantzarik ez dago (dokumentu hori ez da eman eta udala hori egitera behartuta dago); izan ere, bere garaian udal talde kexagileak egindako eskaera administrazio-isiltasun bidez emantzat jotzen da, beste arrazoiren baten beharrik izan gabe.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Udal talde kexagileari ahalik eta bizkorren aurkeztea udalerriko autokarabanen eta ibilgailu astunen gainean udaltzain batek egindako lauhun orrialdetako dokumentua.

